

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuak funtziona dezan hainbat gauza garrantzitsu egin behar dira.

Lehenik eta behin, gure produktuak ekoizteko eta bezeroei zerbitzu ona emateko, behar dugun hasierako kapital bat lortzea da. Hori, banku batekin harremanetan jarriz lortu ahal izango dugu.



Bigarrenez, produktu guztiak hornitzaileen eta langileen laguntzarekin ekoiztea izango da, eta modu honetan, ekoizpen-prozesu guztia askoz azkarragoa izatea lortuko dugu. Produktuak ekoizteko, egin behar den lehenengo gauza diseinua da eta horren arduraduna Saioa Blanco izango da. Gure langileak bozeto desberdinak egingo ditu gero langile guztien artean finkatzeko eta hori egin ondoren bankuak ekoizten hasi ahal izango gara.

Beste kontu garrantzitsu bat publizitate-baliabide on bat izatea da. Gure kasuan, telebistako iragarkien bidez lortuko dugu, gogoratzeko erraza den eslogan bat edukiko duena. Eta gure webgunearen eta sare sozialetan irekitako kontuen bidez baita. Horren guztiaren arduraduna gure langilea Sergi Sarmiento izango da. Hura, marketinean aditua da laz egindako hainbat ikastarori esker eta gure *Comunity Managerra* izango da.



Behin produktuak ekoizita eta publizitate on bat eginda, bezeroek gurekin harremanetan jarriko dira, eta guk, gure kamioien bidez eskatutako produktuak eramango ditugu bezeroak nahi duten lekura. Gure garraio-zerbitzua eskaintzen badugu ere, erosleentzat ere posible izango da, nahi izanez gero, gure biltegiara etortzea haien produktuak jasotzera.

Gure produkturen bat saldu oztean, gure lana erosleen zain jarritzea izango da, konponketaren bat edo beste behar bat duten jakiteko, eta kasu horretan bankuak konpontzea joatea. Bezeroak gurekin kontaktuan jartzeko web orrialdean dauden telefono zenbakia eta emaila erabiltzeko aukera izango dute. Gainera, mikrotxipa lau urtez soilik irauten duenez, komeni da kontaktuan jarraitzea, horrela saltzaileak mantendu ahal izateko.